



Laneko Osasunaren Informazio Buletina

84 alea / 2022ko ekaina

Berritasunak



Nafarroako klima-aldaketari eta horrek lan-osasunean duen eraginari buruzko jardunaldi teknikoa. Joan den ekainaren 2an, **Klima-aldaketa Nafarroan eta horren eragina lan osasunean** izeneko jardunaldi teknikoa egin zen NUPen, Lan Osasuneko Zerbitzuak antolatuta. Topaketa horren helburuak, **LIFE NAdapta** proiektua zabaltzen laguntzeaz gain, klima-aldaketak langileengan dituen ondorioei buruzko informazioa ematea eta arrisku handieneko jarduera-enpresetara egindako bisita-kanpainaren balantzea aurkeztea izan ziren. Gainera, foro hori baliatu zen [Temperatura altuen eraginpean dauden langileen osasuna zaintzeko orientabideak](#) gida aurkezteko, NOPLOIko Osasuna Zaintzeko Atalak egina.

[Argibide gehiago](#)

ALTUERA KO ERORKETEN aurkako kanpaina. #PrebentzioaDaPlanikonena.

La conciencia preventiva es necesaria para revertir esta realidad

#LaPrevenciónEsElMejorPlan
#TrabajosSeguros

GOBIERNO DE NAVARRA
MINISTERIO DE TRABAJO, SEGURIDAD Y SEGURIDAD SOCIAL
INSST

Laneko istripu hilgarrien aurkako talka-planaren esparruan, laneko ezbehar-tasa murriztea helburu duena, INSSTk sentsibilizazio-kanpaina bat abiarazi du **eraikuntzaren sektorean** ondorio hilgarriak eragiten dituzten **altuera-erorketak** prebenitzeko, horixe baita istripu-indize handiena duen jardueretako bat. Material guztiak [INSST-ren webgunean](#) aurki daitezke. NOPLOItik gogorarazi nahi dugu lan horiek berme eta prebentzio-neurri guztiekin egin behar direla.

Nabarmendua

Estatuko topaketa eta kongresuetan parte hartzea. Maiatzean zehar, Estatu mailako hiru forotan izan NOPLOI. NOPLOIko zuzendariak

AGROSEGURIDAD AGROSAFETY

ENCUENTRO INTERNACIONAL DE LA SEGURIDAD Y SALUD OCUPACIONAL EN EL SECTOR AGRÍCOLA Y LA INDUSTRIA ALIMENTARIA

INTERNATIONAL MEETING ON OCCUPATIONAL SAFETY AND HEALTH IN THE AGRICULTURAL SECTOR AND THE FOOD INDUSTRY



Agroseguridad-en parte hartu zuen, eta pandemia garaian Nafarroan sasoikako langileei zuzendutako ekintzak azaldu zituen, osasun publikoaren eta lan-osasunaren integrazioaren ikuspegitik.

Laneko Osasunaren Zaintzarako Ataleko buruak Brotes de COVID-19 txostena eman zuen Espainiako lan-esparruan: sasoikako langileen kasua **Nazioarteko I. Biltzarrean eta 2022ko Laneko Medikuntza eta Erizaintzako Espainiako XII. Kongresuan.**



II Simposio de Higiene Industrial

Santander, 19 y 20 de mayo de 2022
Palacio de la Magdalena



Bestalde, laneko arriskuen prebentzioko ataleko teknikari batek beste autonomia-erkidego batzuetako langileekin batera parte hartu zuen amiantoari buruzko poster bat egiten, eta hori aurkeztu zen Santanderren egindako **Higiene Industrialaren II. Sinposioan.**

Haurren lana ezabatzeari buruzko munduko konferentzia. Joan den maiatzean **Haurren Lana Ezabatzeari buruzko 5. Mundu Konferentzia** egin zen Hegoafrikan. Hiru urte falta ziren haurren lana desagerrarazteko (2025) eta zortzi urte derrigorrezko lana desagerrarazteko (2030). Topaketak jardunbide egokiak eztabaidatzeko eta helburu horiek lortzeko gabeziak eta neurriak identifikatzeko balio izan zuen.



NEGOZIAZIOA. Osasuna aktibo bat da. Enpresako langile guztiek jakin behar dute zer eginkizun eta eskumen dituzten prebentzio-arloan. Pertsona bakoitzak enpresan lan-arriskuen prebentzioan bete behar duen zereginari buruzko informazioa, elkarrizketa eta adostasuna funtsezkoak izan daitezke bizitzak salbatzeko.

Berriak

- [COVID-19 como enfermedad profesional en la asistencia sanitaria, social y domiciliaria.](#)
Prevención Integral
- [Escrivá descarta un Real Decreto para agilizar la gestión de bajas médicas](#)
Redacción médica
- [La pandemia deteriora las condiciones de trabajo de los profesionales de la prevención](#)
CCOO Servicios
- [Un juzgado reconoce como accidente laboral la baja por salud mental](#)
Prevencionar.com
- [Salud Laboral registra en lo que va de mayo más de 150 bajas por covid al día](#)
Diario de Noticias
- [Casi el 25% de las empresas en Navarra perciben problemas de salud mental en sus plantillas.](#)
Diario de Noticias
- [Los responsables de prevención de la empresa pueden visitar al teletrabajador](#)
El País

Agenda



Jardunaldi teknikoa
**ZARATAREKIKO ETA BIBRAZIOEKIKO LANEKO
ESPOSIZIOAREN EGOERA**
CNNT Madrid – Ekainak 14

- Programa
- Izen- ematea



Webinario
**ALTUERAKO ERORKETEN AURKA NORBERA BABESTEKO
EKIPAMENDUARI BURUZKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK**
CNMP Sevilla – Ekainak 15

- Programa
- Izen-ematea



Presentziala/Online Ikastaroa
**LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNARI BURUZKO
OSALANEN XII. UDAKO IKASTAROAK: "AVANCES EN
PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES"**
Donostian – Ekainak 16/17

- Programa
 - Izen-ematea
-

Argitalpen digitalak




Factores de riesgo psicosocial y riesgos asociados en el sector del transporte por carretera

INSST



Guía técnica para la evaluación y prevención de los riesgos relacionados con la exposición al amianto - Año 2022

INSST



Procedimiento de investigación de casos de enfermedades profesionales

INSST



Informe de siniestralidad en el transporte terrestre y por tubería

INSST



NANOMATERIALES. Medidas preventivas en laboratorios de investigación

INSST

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) ez du bere gain hartzen argitaraturiko artikuluen eta albisteen edukirik; izan ere, bere horretan hartu dira kasuan kasuan aipaturiko webgunetik, eta ez zaie aldaketarik egin ezta deus erantsi ere. Edozein kontsulta edo iradokizun egin nahi baduzu, edo ez baduzu bidaltzaile honen informazio gehiago jaso nahi, NOPLOIra jo dezakezu, helbide elektronikoa honetara: ispln.ufii@navarra.es



ARGITARATZAILEA:

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (Landabengo industrialdea, E eta F kaleak, 31012 Iruña)

☎ 848 423 771

Edizio-formatua: fitxategi elektronikoa. 2022ko ekaina.